

Elkartek 50

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2019ko Uztaila

ESPAÑA
ESPAÑA



FRANKEO
ORDAINDUA
FRANQUEO
PAGADO

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO



Gogoratu ...

ARABA

Simon Bolivar plaza, 9 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

HEZKUNTZA INKLUSIBOΔ
BERDINTASUNA
ENPLEGU PUBLIKOΔ

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

GIPUZKOA

- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetatasuna.
- **ASPARGI**
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BEGIRIS**
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarteak.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarteak.
- **KEMEN**
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarteak.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bífida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarteak.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltezuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.
- **EMAN ESKUA**
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristautau Elkarteak.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.
Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

Orokorra

Desgaitasuna duten neskato eta emakumeen eskubideak	4
M8ko manifestua	5
Foru eta udal hauteskundeetarako 14 proposamen	6
Zaintzaileak eta gizarte-segurantzan kotizatzeako eskubidea	7
Euskal enplegu publikoaren lege-proiektuari egindako ekarpenak	7
Hezkuntza inklusiboaren ereduaren alde	8
Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta Espainian ezarpena ez betetzea	9

Araba


Lokal-aldaketa.....	11
Garraioa eta mugikortasuna Gasteizen eta Araban	12
Ahalduntze-tailerra	13


Bizkaia

Autobusen geltoki berria eta irisgarritasun unibertsala	14
Bizkaibus eta irisgarritasuna	14
Irisgarritasuna eta Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	15
Bilbobus, hartutako neurriak	15
Komun publiko egokituak Getxon	15
Kanpaina “Ni aldaketaren eragile, irisgarritasun unibertsala helburu”	16
Oztopo arkitektonikoak kentzeko diru-laguntzak	16
Zainketarako prestazio ekonomikoak	17

Gipuzkoa

Federazio Koordinatzaileak 40 urte bete ditu	20
Donostiako autobus geltokia	20
“Pertsona guztientzako museoa” biltzarra	21
Autobusak eta irisgarritasunaren arloko prestakuntza	22
Mendekotasuna eta zaintzaileak	23
Osasun-instalazioetako irisgarritasuna	24





DESGAITASUNA DUTEN EMAKUME ETA NESKATOEN ESKUBIDEAK HOBETZEKO AURRERAPENAK

Otsailean, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak 15/2019 Legez Besteko Proposamena onetsi zuen, aniztasun funtzionala duten neskato eta emakumeen eskubideei buruzkoa. Bertan, Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatzen zitzaion, besteak beste:

- Modu autonomoan bizi eta bizitzako alderdi guztietan osoki parte hartu dezaten bermatzea, gainerako pertsonen baldintza berdinetan, euren proposamen eta beharrian espezifikoak zeharkakotasunez txertatuz politika guztien planifikazio, betearazpen eta ebaluazioan.
- Generoa eta aniztasun funtzionala zeharkakotasunez, dauzkan forma guztietan eta politika publiko guztietan txertatzeari buruzko gida egitea.
- Arlo honetan lan egiten duten elkarteekin elkarlana indartzea eta euren parte-hartzea kontuan izatea.

ELKARTEANek ekimen hau goraiatu du, zalantzarik gabe desgaitasuna duten neskato eta emakumeentzako baldintza hobekak ekarriko dituzten neurriak jasotzen baititu, euren eskubideak berdintasun-baldintzetan eta diskriminaziorik gabe gauza ditzaten. Konpromiso horien bilakaera zainduko dugu, eta garapean parte hartzeko eskatuko dugu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Euskadin Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzeko Aurreproiektua aurkeztu du. Ekimen honetan desgaitasuna duten emakume eta neskatoen beharrak txertatzeko asmoz,

ELKARTEANen iritzia eta proposamenak helarazi dizkiogu Eusko Jaurlaritzari. Aurkeztutako testuan aurrerapen garrantzitsuak jasotzen dira: emakumeen ahalduntzea lantzea, interseksionalitatearen kontzeptua txertatzea, protokolo bateratuak eta erakunde eta administrazioen koordinaziorako neurri hobekak. Baina hala ere, Aurreproiektuko gai batzuk hobetu egin beharko lirakeela uste dugu.

Beste gai batzuen artean, irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua txertatzeko beharra jakinarazi diegu. Adibidez, honako hauek txertatzeko neurriak: genero-ikuspegia kontuan hartzen duen hirigintza eta emakumeentzako zerbitzu eta baliabide guztien irisgarritasuna; indarkeria-egoeren aurkako prozesuko fase guztietan irisgarritasun-baldintzak bermatzea leku, gailu eta baliabide guztietan (polizia-etxea, polizia-ibilgailuak, etxebizitza-baliabideak etab.); edo gauean ere garraio irisgarri eta segurua jartzea, bere etxe alboan gelditzea aukerarekin, eta betiere geldialdia egiten den lekua irisgarria bada.

Era berean, harrera egiteko baliabide guztiak egokitzeko beharra adierazi dugu, irisgarriak izan daitezten, eta indarkeriaren biktima izandako desgaitasuna duten emakumeak ez dira, inolaz ere, egoitza-baliabide batean bizitzera bultzatuko. Indarkeria-egoerak jasaten dituzten desgaitasuna duten emakumeei askotariko gailuak eta etxebizitza egokiturako aukerak eskuratzea ziurtatu behar zaie, gainerako emakumeen aukera berdinetan, bizitzeko lekua eta non eta norekin bizi nahi duten aukeratzeko eskubidea errespetatuz, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera derrigortu gabe, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua xedatutakoa betez. Halaber, bizimodu independentea berregiteko baldintza guztiak eduki behar dituzte, **ELKARTEAN**ek defendatzen duen Bizimodu Independentearen arabera.

M8 (EMAKUMEAREN EGUNA) DELA ETA, ADIERAZPEN BAT PLAZARATU DUGU GURE ALDARRIKAPEN NAGUSIENEKIN

A dierazpen honetan desgaitasuna duten emakume eta neskato guztiek beren eskubideak berdintasunez gauzatzea lortzeko landu behar ditugun ildo nagusiak jaso ditugu. Hauek dira:

- Emakumeen ahalduntzea bultzatu eta etorkizuna erabakitzeke eta non, nola eta norekin bizi nahi duen erabakitzeke eskubidea bermatzea, bizi- sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartu gabe, eta genero-rol eta estereotipoek eraginda, bide zehatz bat hartzera derrigortu gabe, bizimodu independentea garatuz, beste edozein pertsonak bezala.
- Komunitateko zerbitzu, baliabide eta espazio guztietarako sarbidea ziurtatzea, beren partaidetza bermatuz; batzuetan, gehiegizko babesak, zaintza-rolak eta irisgarritasun unibertsaleko oztipoek mugatu egiten baitute.
- Hezkuntza-eremuan, desgaitasuna duten neskato eta emakumeen nortasun, gaitasun eta ahalmenaren ahalik eta garapen handiena bultzatzea, dituzten banakako beharrezanezi eta etorkizunerako itzaropenei erantzunez, prestakuntza-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrietan.
- Desgaitasuna duten emakumeek askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizimodua ateratzeko aukera izateko eskubide bermatzea, lan-merkatu eta lan-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrian.
- Mendekotasun-egoeran dauden beste pertsona batzuen zaintzaile- lanetan aritu nahi duten

edo seme-alabak zaindu nahi dituzten desgaitasuna duten emakumeekiko diskriminazioa desagerraraztea, horretarako behar dituzten laguntzak eta kontziliazio-neurriak emanez.

- Hiri-gune eta eraikuntzetan irisgarritasuna eta segurtasuna ziurtatzea, gune kritiko edo segurtasunik gabeak kontuan hartuz (genero-ikuspegidun hirigintza, garraio segurua...).
- Irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatzea Osasun Sistemako osasun-zentro, ospitale eta gainerako guneetan, bereziki emakumeentzako zerbitzu espezifikoetan.
- Desgaitasuna duten emakumeen errealitate berezia eta beharrezan kontuan hartzea, indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako prebentziozko, laguntzeko eta babes-teko politiketan, kontuan hartuta jasan behar izaten dituzten era askotako indarkeria-motak, indarkeria gertatzen den era askotariko lekuak eta erasotzaile anitzak.
- Desgaitasuna duten emakumeen dimensio sexualaren era askotako alderdiak, zein ama izateko nahia (askatasunez hala aukeratzeko dutenean) garatzea ukatzen duten estereotipoak apurtzea.




ALDERDI POLITIKOEI 14 PROPOSAMEN PROPOSATU DIZKIEGU FORU ETA UDAL HAUTESKUNDEETARAKO

ELKARTEAN ek lehenasunezko 14 ildo hauek jasotzen dituen agiri bat helarazi die alderdi politikoei, foru- eta udal-eremuetan Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa ezartzen dela ziurtatzeko. Betiere, desgaitasun fisikoak duten pertsonak beren eskubide guztiak gauzatu eta komunitatean besteen aukera berdinekin parte hartu eta bizimodu independentea garatzeko baldintza egokiek.

Besteak beste, honako hau lortu nahi da neurriok ezarri:

- Irisgarritasun unibertsala ziurtatzea alderdi hauek barne hartzen dituzten udal-ordenantza eta planen bidez: etxebizitza publiko eta pribatua, espazio publikoa, ikastetxeak, erai-kingintza publikoa, garraioa, komunikazioa, aisialdia, kultura eta kirola.
- Bizimodu Independenteko Eredua sustatzea, pertsona bakoitzak non, nola eta norekin bizi nahi duen erabakitzeko aukera izan dezan, bizi- sistema espezifiko baten arabera bizitzera derrigortu gabe, komunitatetik isolatuta edo baztertuta egon gabe: gizarte-zerbitzuekin, etxebizitza duin, egoki eta irisgarriarekin eta laguntza-produktuekin.
- Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemako prestazio ekonomikoak garatzea, eta baita zaintzaileak laguntzeko beste edozein prestazio edo zerbitzu ere, prestazioek desgaitasuna duten pertsonen diskriminazioa eragin gabe mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaindu edo laguntzeko zereginak burutzeko ezgaitasun-presuntzioa ezarri.

- Udal-ordenantzak zehaztu eta hedatzea, eta aparkatzeko txartelaren eta erreserbatutako aparkalekuen eremuan irizpideak bateratzea, desgaitasuna duten pertsonentzako neurri egokiak jaso ditzaten. Beste gai batzuen artean, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko txartelen erabilera egokia ziurtatzea, aplikatzeokak diren irizpideak bateratuz, udalerrien arten desberdintasunik egon ez dadin.
- Aisialdi, kultura eta kirol eskaintza egokia, irisgarria eta behar bestekoa bermatzea, adin eta behar desberdinetara egokituak, desgaitasuna duten pertsona guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten komunitateko jardueretan, gainerako herritarrekin batera.
- Desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuko duten neurri fiskalak garatzea (hobariak, kenkariak, salbuespenak edo zerga-arinketak), gaitasun ekonomikoak aukera-berdintasunean egon dadin gainerako pertsonekin alderatuta, eta bizimodu independenteko prozesuak bultzatuz.





ZAINZAILEEK GIZARTE SEGURANTZAN KOTIZATZEKO ESKUBIDEA BERRESKURATU DUTE

BOEn 2019ko martxoaren 12an argitaratu zen 8/2019 Errege Lege Dekretua, Gizarte-babeserako eta lanaldian lanprekariatatearen kontra borrokatzeko presako neurriena, eta bertan mendeko pertsonen zaintzaileentzako neurri garrantzitsua jasotzen da, zaintzen aritutako denboran Gizarte Segurantzian kotizatzeako eskubidea berreskuratzen baita, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen baldin badute.

Eskubide hau kendu egin zen 2012an, Mendekotasunaren Legean egindako murrizketengatik. Araudi berri honen bidez, Gizarte Segurantzian alta egiteko kuota berriz ere administrazioak ordaintzeko aukera berreskuratzen da, kotizazioak pilatzea ahalbidetuz, zaintzaileek etorkizunean pentsioak izan ditzaten (erretiroagatik kotizaziopeko pentsioak, ezintasun iraunkorragatik pentsioak etab.). 2012ko murrizketetatik neurri hau onetsi den arte, zaintzaileak ordaindu behar izan du kotizazioaren kostua bere kontura.

Oro har, eskubide hau gauzatzeko zaintzailea ezin daiteke alta-egoeran egon Gizarte Segurantzako araubideetan lanaldi osoan edo langabezian, edo ezingo ditu prestazio jakin batzuk jaso.

Eskatzeko, Gizarte Segurantzako bulegoetara joan behar duzu, eta bertan adieraziko dizute zer egin eta zein agiri aurkeztu.

Gai honi buruzko zalantza bat baduzu, **ELKARTEAN**eko elkarteetan ere galde dezakezu.

EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO LEGE PROIEKTUARI EKARPENAK EGIN DIZKIOGU

ELKARTEANen ustetan, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoa eskuratu ahal izatea bide egokia da gure kolektiboari askatasunez aukeratutako edo onartutako lana izateko eskubidea bermatze-lanean aurrera egiteko, betiere lan-merkatu eta laninguru ireki, inklusibo eta irisgarrian (Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa 27. artikulua).

Horregatik, Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektuari buruzko iritzia eta egin dizkiogun ekarpenak helarazi diegu legebiltzar-taldeei, testuak benetako aukera-berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala ziurta ditzan gure kolektiboak enplegu publiko eskuratu, mantendu eta sustatzerakoan.

Beste gai batzuen artean, enplegu publikoa eskuratu, mantendu eta sustatzeko alderdi, elementu eta fase guztietan neurri eta baldintza espezifikoko txertatzeko beharra adierazi genien (funtzionarioei zein lan-kontratadun langileei buruz). Hau da, ez bakarrik kupo-erregulazioarekin eskuratzekoan, baita beste alderdi batzuetan ere: prestakuntza, lanbide-karrera, mugikortasuna, eszedentziak etab. ordutegimalgutasuna, kontziliazio-neurriak, baimenak,

Halaber, desgaitasuna duten pertsonetikiko edozein diskriminazio kentzera premiatu ditugu, gaitasuna egiaztatu beharrari edo desgaitasunagatik edozein lanpostu eskuratzetik baztertuak izateari buruz, Pertsona Desgaituen Eskubi-

deei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren aurkakoa baita. 12. artikuluan pertsona guztiek gaitasun juridikoa dutela aintzatesten du. Izan ere, xedapen hau bete ahal izateko, orain arte gure kolektiboaren balioa gutxiesten zuten arau diskriminatzaileak aldatu egin dira dagoeneko. Adibidez, botoa emateko, ezkontzeko edo epai-mahaikide izateko eskubideari buruzko araudian egindako aldaketak, desgaitasuna duten pertsonen ezgaitasun-presuntzioa eta jardunean aritzeko edozein muga ezabatzen baitute. Ezin daitezke, inolaz ere pertsonak baztertu lanpostura ezin daitezkeela egokitu uste izateagatik; lanpostua egokitu behar da pertsonak lana burutu ahal izateko.

Halaber, Administrazioan eta 25 langile edo gehiago dauzkaten enpresa publikoetan desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuota dagokion Administrazioaren langile guztien % 4ra igotzea proposatu diegu, enplegu publikoaren eskaintzetan eskaintzen diren lanpostuen % 10 gutxienez kolektibo honentzako gordez, kuota-portzentajea betetzen ez denean eskainitako lanpostuen talde funtzionalen artean ahalik eta banaketa orekatuena izaten saiatuz. Hori guztia erreserba-kuotak talde eta kategoria guztiak barne hartzeko moduan, orokorrean lanpostu guztietara eta lan-poltsetara hedatuz.

Era berean, ez gaudela ados jakinarazi diegu desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoa eskuratzeko sistema orokortzat deialdi espezifikoen sistema erabiltzearekin. Aukera-berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioetan oinarrituta, herritar guztientzako enplegu publikoaren deialdietako sistema orokorraren lehentasuna berriaz jaso beharko litzateke.

Azkenik, egin dizkiegun beste ekarpen batzuk nabarmenduko ditugu:

- Administrazio publikoetako lanpostuen egokitzapena eta espazio eta azpiegitura guztien

irisgarritasun unibertsala bermatzea, aplikatzeko den araudiarekin bat etorritz.

- Prestakuntza eta gaitasunen garapena bermatzea beste edozein langile publikoren aukera berdinekin, eta benetako aukera-berdintasuna bermatzea lanbide-sustapenerako enplegu publikoaren barruan.
- Desgaitasuna duten pertsonen sarbidea erraztea Administrazio praktiketara, Hezkuntza Sailarekin eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin gauzaturako hitzarmen espezifikoen bidez.

HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN EREDUAREN ALDE

Martxoan, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Sailak sustaturako jardunaldiak (“Eskola abian: inklusioaren eta berdintasunaren bidean”) egin ziren Bilbon. Bertan, Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru Plana eta EAEko hezkuntza sistemarako II. Hezikidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean planak aurkeztu ziren.



ELKARTEANek Hezkuntza Inklusiboaren Eredua defendatzen du, Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 24. artikulua ezartzen duenaren arabera. Xedapen honek estatuei eskatzen die desgaitasuna duten pertsonak hezkuntza-sistema orokorretik kanpo ez geratzeko neurriak hartzea; zentzuzko egokitzapenak egitea banakako beharrezanaren arabera; behar den laguntza ematea hezkuntza-sistema orokorraren esparruan, benetako prestakuntza bultzatzeko; eta laguntza-neurri pertsonalizatuak eta eraginkorrak ematea garapen akademiko eta soziala ahalik eta gehien sustatzen duten inguruetan, erabateko inklusioaren helburuaren arabera.

Hau da, Hezkuntza Inklusiboaren Eredua defendatzeak desgaitasuna duten ikasleen benetako inklusioa gertatzeko beharrezkoak diren neurri eta laguntzak ematea esan nahi du, izan ditzaketen laguntza-beharren aniztasuna kontuan hartuz. Horregatik, erabat inklusibo eta irisgarriak den HEZKUNTZA ESKAINTZA ETA INGURUA IZATEKO ESKUBIDEA aldarrikatzen dugu ikasketa-maila guztietan eta jarduera guztietan: eskolako eta eskolaz kanpoko jardueretan, jolastorduetan, ibilaldietan, jantokiz berbitzuan, eskola-garraioan etab.

HORRETARAKO BEHARREZKOA DA baldintza eta neurri hauek bermatzea:

- Desgaitasuna duten ikasle guztiek beharrezkoak dituzten hezkuntza- laguntza eta hezkuntza-sendogarri guztiak edukitzea.
- Ikastetxe, gune eta gailu guztiak irisgarriak izatea pertsona guztiek, desberdintasunik gabe, erabili ahal izateko.
- Nortasunaren, gaitasunen eta ahalmenen garapena ahalik eta gehien bultzatzea, ikasleek etorkizunari buruz dituzten banakako beharrezanari eta itxaropenei erantzunez.
- Lan-garapenarekiko lotura bermatzea, desgaitasuna duten pertsonentzako prestakuntza- inguru ireki inklusibo eta irisgarrietan.

ELKARTEANek ikusi duenez, sarritan, desgaitasuna duten pertsonak oraindik ere ez dituzte beharrezko laguntzak jasotzen edo ez dute

irisgarritasun- baldintza egokirik, eta beraz, baztertuta geratzen dira, gainerako pertsonen aukera berdinek gabe. Horregatik eskatzen diogu Hezkuntza Sailari gure parte hartzea gune, foro eta mahaietan egoeraren diagnostiko egokia partekatu eta Administrazioaren konpromisoa lortzeko hezkuntza inklusiboa bermatuko duten neurrien bidez.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO NBE-REN BATZORDEAK ESPAINIAN KONBENTZIOA EZ DELA BETETZEN SALATU DU

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko NBEko Batzordea Konbentzioaren ezarpenean egin diren arrerapenak ebaluatzeaz arduratzen da, eta orain dela gutxi txosten bat argitaratu du, bere ardura adieraziz Espainian Konbentzioaren neurri asko ez direlako aplikatzen.

Besteak beste, arduratuta dago eta gomendioak eskaintzen ditu **ELKARTEANek** dagoeneko salatutuen gure kolektiboarentzako oinarritzko alderdietako egoera leheneratzeko. Honako hauek azpimarratu nahi ditugu:


- Bizimodu Independentea: Batzordea kezkatuta dago laguntza pertsonala eskuratzeko mugagatik, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-erakunde berrien eraikuntzarako funts publikoak inbertitzen jarraitzen delako eta ez dagoelako desistizionalizazio-estrategiarik, ezta desgaitasuna duten perso-

nek beren komunitatean bizimodu independentea sustatzeko ekintza- planik ere. Beste gai batzuen artean, batetik, gomendatzen du laguntza pertsonalerako eskubidea garatzea, desgaitasuna duten pertsona guztiei komunitatean bizimodu independentea gauzatzeko euren irizpide pertsonalizatuei erantzungo dien laguntza pertsonalerako eskubidea bermatuz, eta pertsonak garatutako eta erabiltzaileak zuzendutako laguntzen aukera zabala eta zerbitzu- eskaintzaren autogestioa barne hartuko duena; eta bestetik, desistuzionalizazioarako estrategia integrala diseinatu, onartu eta ezartzea, instituzionalizazioarako baliabideak komunitatean oinarritutako baliabideetarantz eta zerbitzuak eskuratzeko berdintasuna hobetzen duten laguntzetarantz (laguntza pertsonala barne) berresleitzeko neurriak edukiko dituen.

- Enplegu arrunta: Batzordea kezkatuta dago lan-merkatu irekian ez delako aurrerapenik egon desgaitasuna duten pertsonen enplegutaren gehikuntzan. Gainera, bereziki eragiten die emakumeei eta landa-guneetan bizi direnei; halaber, kezkatuta dago lantokiko diskriminazioaren aurkako legeen ezarpenari buruzko informazio faltagatik, diskriminazio zuzenari edo zeharkako diskriminazioari buruzko informazioa barne, eta baita zentzuzko egokitzapenak ukatzeari buruzko informazioa faltagatik ere. Egoera leheneratzeko, besteak beste, gomendatzen du sektore publiko eta pribatuan desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzea eta arazoizko egokitzapenen prestazioaren (lanpostuko egokitzapenak) eskuragarritasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
- Irisgarritasuna: Batzordea kezkatuta dago administrazio publikoetarako irisgarritasun-politiken aurrerapen eta eraginkortasun faltagatik, aurrekontu-esleipen egokien gabeziagatik, eta derrigorrezko irisgarritasun-baldintzen faltagatik kontratazio- publikoetako maila guztietan. Aurrekontu eta legegintzaren arloko neurriak hartzea gomendatzen du egoera hau leheneratzeko, administrazio publikoari

eta kontratazio publikoari buruzko lege eta neurri guztietan irisgarritasuna ziurtatzeko eta jarraipen- mekanismoak ezartzeko baldintzak txertatzea desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzearekin, irisgarritasunaren arloko araudiaren betearazpena eta irisgarritasun-araudiak betetzen ez direnean beharrezko zehapenen ezarpena bermatzeko.

- Hezkuntza inklusiboa: Batzordea kezkatuta dago Estatu kidean hezkuntza inklusiboaren arloan egin diren aurrerapen eskasengatik, hezkuntza inklusiboa sustatzeko politika argien eta ekintza-planen falta barne, desgaitasuna duten pertsona askok hezkuntza berezi eta banandua jasotzen jarraitzen baitute oraindik. Hezkuntza inklusiboa eskubidetzat jotzen duten neurriak hartzea gomendatzen du, desgaitasuna duten ikasle guztiei, euren ezaugarri pertsonalak edonolakoak direla ere, ikasketa- aukera inklusiboak eskuratzeko eskubidea ematen diena, hezkuntza-sistema arruntaren barruan, behar dituzten laguntza-zerbitzuekin eta bere ikerketako txosteneko gainetarako gomendioak ezarriko dituen. Gainera, Batzordeak gomendatzen du Estatu kideak hezkuntza inklusiboko politika integrala gauzatzeko, hezkuntza arruntan inklusio-kultura sustatzeko estrategiak jasoko dituen. Honako hau barne hartuko du hezkuntza inklusiboko politika integralak: ebaluazio pertsonalizatuak eta baldintza akademikoen eta egokitzapenen giza eskubideetan oinarritutakoak, irakasleentzako laguntzak, aniztasunarekiko errespetua, desgaitasuna duten pertsonen berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta gizarteko partaidetza erabatekoa eta eraginkorra bermatzeko.





eginaren eginez ELKARTEAK LOKAL BERRIA DU

Martxoan hasi ginen elkartearen lokal berrira lekualdatzen. Arabako erakundeei hainbat urtetan *eginaren eginez* elkartearentzako bere beharretara egokitutako lokal bat (zabala, irisgarria, erdigunearekin eta hiriko auzoekin hobeto komunikatuta dagoena etab.) lagatzeko eskatzen aritu ondoren. 2017. urtean, Gasteizko Udalak eta *eginaren eginez* elkarteak hitzarmen bat gauzatu zuten, udalak gure elkarteari goian aipatutako baldintzak betetzen zituen lokal bat lagatzeko. Izan ere, baldintza horiek uko egin ezinezkoak ziren elkarteko bazkideetako asko mugikortasun urriko pertsonak baitira eta mugitzeko laguntza produktuak behar baitituzte. Denok dakizuen bezala, orain arte elkarteak Beato Tomás de Zumarraga kalean zuen lokala lokal txikia da, eta antolamendua ez da batere egokia kolektiboaren beharri zehar erantzuteko, eta ezta azken 15 urtetan bertan antolatu ditugun batzarrak egiteko ere. Horregatik, taldeko bilera eta jarduera gehienak –lantaldean batzar jendetsuak, ahalduz zehar buruzko talde-jarduerak– beste lokal batzuetan egin behar izan ditugu, esaterako auzo-etxeetan eta beste elkarte batzuen egoitzetan.

Zenbait legealditan zehar, baldintza hobeak zituen lokala lagatzeko eskatzen aritu gara, eta 2017. urtean Gasteizko Udalak eta *eginaren eginez* elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten lehenago Zuzenean kirol-taldeak erabiltzen zituen udal-lokaletako bat lagatzeko Simon Bolivar plazan. Lokalak berritze integrala behar zuen, hain zuzen, irisgarritasunik ez zuelako. Horregatik, Arabako Foru Aldundiarekin adostu genuen egokitzapen-lanen finantzaketa, eta lokal honen mantentze-lanak elkarteak burutuko lituzke, aurreko lokalarena bezala.

Gorabehera eta zailtasun arin batzuen eta beste

zenbait larriren ondorioz, erakundeak ezin izan du elkartearen egoitza 2019. urtera arte lekualdatu, eta beraz, martxoan hasi genuen egoitza-aldaketa. Hala, apiriletik hona, elkartearen barne-lan guztia egiten ari gara, eta baita bestelako lanak ere: bazkideei arreta zuzena eskaintzen, zuzendaritza-batzordearen batzarrak egiten, hirugarren sektoreko beste mugimendu batzuekin edo administrazioekin bilerako egiten gure egoitza berrian, egoitza handia dela eta hiriaren erdigunean kokatuta dagoela aprobetxatuz.

Eskerrak eman behar dizkizuegu lekualdaketa eta ondoren altzariak, agiriak eta gainerako gauzak muntatzen eta atontzen *eginaren eginez* elkarteari lagundu diozuen pertsona guztiei. Aitortu behar dugu, ez genekiela lokal zaharrean hainbeste gauzarentzako lekua zegoenik!

Lekualdaketari esker, kaxa, tiradera eta armairuei hautsa kendu diegu, eta erakundearen agiri zaharrak, argitalpenak, kartelak, eranskailuak... aurkitu ditugu gordeta. Beraz, *eginaren eginez* elkartearen artxibo historikoa eta bere ibilbideari buruzko argitalpen bat egitea bururatu zaigu.

Oraindik egoitza berria guztiz atonduta ez badago ere (gauza batzuk jartzea eta apaintzea falta da), bertan gaude dagoeneko eta zerbitzu guztiak martxan ditugu. Beraz, bertara hurbildu eta lokal berria ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Lokal hau Gasteizko erreferente izaten jarraitzea espero dugu desgaitasun-egoeran dauden pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak lortzeko borrokan.

*Zuen zain egongo gara
hemen:*

Simon Bolivar plaza, 9 behea
01003 Vitoria- Gasteiz

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA GASTEIZEN ETA ARABAN

Azken hilabeteotan zehar, jakin dugu hainbat aldaketa egin direla arau eta irizpideen arloan Gasteizko eta Arabako lurralde historikoko garraio- eta mugikortasun-zerbitzuetan.

Laguntzaileek doan bidaiatuko dute

Hala, desgaitasuna aitortuta duten eta autonomia eta segurtasunez moldatzeko laguntzailea behar dutenekin doazen laguntzaileei kobratu beharreko tarifetan Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak egindako aldaketak eza-gutu ditugu.

Orain dela hilabete batzuetatik hona, eta beste batzuetan orain dela denbora gutxiagotik, laguntzaileek ez dute txartelik ordaindu behar Gasteizko tranbian, TUVISAko autobusetan edo Arabako Foru Aldundiak kudeatutako hiriar-teko autobuseko lineetan bidaiatzen dutenean.

Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri gara neurri hau eskuratu ahal izateko bete behar diren irizpideak zeintzuk diren jakiteko eta ahalik eta gehien zabaltzea eskatzeko, eskubide hau gauza dezaketen pertsona guztiak ezagut dezaten.

Eskatutako geldialdiak

Era berean, foru-gobernuak zein udal-gobernuak ohiko geldialdiez gain, tartean beste geldialdi batzuk egiteko aukera onetsi dute emakume eta adingabeentzat hiriar-teko eta hiriko autobus-lineetan. Horrela, azken helmugaraino duten ibilbidea laburtu eta segurtasun-sentipena gehituko da. Erakunde biei neurri hau oso onuragarritzat jotzen dugula adierazi diegu, baina mugikortasun urriko pertsonen aukera hau aplikatzeko eskatu diegu, mugitzeko duten zailtasunagatik, eta kolektiboko emakumeen kasuan segurtasuna gehitzeko beharragatik ere bai.

Analisi konparatiboa

Aldaketa hauen ondorioz, analisi konparatiboa egin dugu hiru euskal hiriburu-etako udal-araudien artean, garraio publikoaren zerbitzuan mugikortasun urriko erabiltzaileek eta desgaitasuna aitortuta dutenek dauzkaten eskubide eta betebeharrei buruz. Horrela, irisgarritasun-baliabideak erabiltzeko aukerari buruz irizpide desberdinak daudela egiaztatu dugu, erabiltzailearen afektazio-motaren arabera.

Laster, eta elkartearen Aholkularitza Juridikoko Batzordearekin batera, araudia hobetzeko proposamena aurkeztuko diegu Gasteizko udalbatzari eta Arabako Foru Aldundiko gobernuari. Araudia hobetzeko, irisgarritasun-indize handiagoa sustatzen duten neurriak proposatuko ditugu, dagoeneko Bizkaia eta Gipuzkoako (Bilbo eta Donostia) legedian jasota baldin badaude ere, oraindik ez baitira Arabako edo Gazteko legedian txartatu.

Desberdintasun horien artean, beharbada garrantzitsuena ibilgailuetara bestelako mugikortasun-elementuekin (Scooterrak, adibidez) sartzeko aukera da, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen asko erabiltzen baitituzte.



AHALDUNTZE-TAILERRA

Hilaren 2an, eginaeren eginez elkarteko bi kidek Arabako Foru Aldundiaren mendeko Autonomia Pertsonalerako Zentroan burutu zen desgaitasuna duten emakumeentzako ahalduuntze-tailerrean parte hartu zuten elkartearen ordezkari gisa.

Tailer honetan hainbat gai landu ziren: bizitzako ardurak eta bertaratutako emakumeek ardura horiek kudeatzeko zeukaten gaitasunaren hautematea, besteak beste. Hala, hausnarketarako galdera hauek proposatu ziren: zeintzuk dira gure bizitzako ardurarik/beldurrik garrantzi-tsuena? Nork du horiek konpontzeko ardura? Nola hautematen dugu geure burua? Gustatuko al dugu orain gauden lekua? Nora heltzea gustatuko litzaiguke?

Galdera horiek oinarritzat hartuta, hausnarketako eta autokritikako prozesua egin zuten, parte-hartzaile bakoitzaren gaitasun, indar eta baliabide pertsonalak gehitu eta kolektibo gisa loturak eta harremanak sortzeko.

Hauek izan ziren jardunaldiko ondorio nagusiak: gure ardura eta erronkez konturatzea; eta konponbideak bilatzeko erantzukizuna hartzea; dagoeneko lortu ditugun helburuen-gatik geure burua aintzatetsi eta zoriontzearren garrantzia.

Ondorio garrantzitsu bat hauxe da: bizitzan helburuak lortzeko helburuok optimistak baina errealistak izan behar dira. Horrez gain, garrantzitsua da konturatzea arrakasta ez dela kanpoko alderdien baitan egon behar.

Tailer honetako beste ondorio bat emakumeen mugimenduetan eragina izatearen beharra izan da, gure egoera ezagutarazi eta



errealitate ani-tzen artean loturak eta sinergiak sortzeko.

Interesgarria iruditzen zaigu mota honetako tailerrak egiten jarraitzea, garrantzitsua dela uste baitugu eta landu beharreko gai asko baitaude. Kolektiboko emakumeen aurkako indarkeriaren eta euren sexualitatearen gaiak administrazioen eta kolektiboen lehenetsuen artean ia lekurik ez duten arren, gai horiek jorratzea nahitaezkoa da desgaitasuna duten emakumeen benetako ahalduuntzea eta ongizatea lortzeko.

AUTOBUSEN GELTOKI BERRIA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Azken hilabeteotan zehar, eskumendun erakundeekin elkarlanean aritu gara, obren jarraipena egiteko eta Bilboko autobus-geltoki berriaren planoetan antzemandako hobekuntzak proposatzeko.

Bilerak egin eta agiria aztertu ondoren, hauek dira eskatu ditugun hobekuntzetako batzuk:

- ✓ planoan aurreikusitako ibilbideen seinaleak ez dira egokiak kanpoko auzuneetan eta seinaleak hobetzeko gomendioak egin dira irisgarritasun kognitiboa eta auzuneetan ibiltzea errazteko.
- ✓ txartelak erosteko eta jendearentzako arretarako bi salmahai irisgarri bakarrik daude proiektuan, eta beraz, hala bada, irisgarriak diren guneetan konpainia guztien txartelak erosteko aukera bermatzea eskatu dugu.
- ✓ kontsignen eta makina automatikoen diseinuak irisgarritasunari buruzko arauak bete beharko ditu eta 68/2000 araudian ezartzen den altueran kokatuta egon beharko dira.
- ✓ gurpil-aulkian dabilzan pertsonentzako eta beraiekin doazentzako beste leku bat gehiago jarri behar da, proiektuko planoetan itxarongelarako aurreikusten diren hiru lekuez gain (legezko ratioaren arabera 2 leku dira mugikortasun urriko pertsonentzako 100 lekuko).
- ✓ Bainugelei dagokienez, komun irisgarria duen beste kabina bat jartzeko beharra azpimarratu dugu bereziki (bat bakarrik agertzen da proiektuan) bainugela bakoitzean eta solairu bakoitzean. Bi kabina irisgarri jarri behar dira, bat gordeko da hamar edo frakzio bakoitzeko, sexu bakoitzerako. Garrantzitsua dela uste dugu gutxienez 120 cm-ko lekua edukitzea komunaren aurrealdean. Haurren

aldalekuak ere altuera irisgarrian egon beharko dira, araudian ezer adierazten ez bada ere.

- ✓ Beheko solairuari buruz, gure kezka adierazi genuen aparkalekuekin lotzeko aurreikusita dagoen % 4ko maldarengatik. Era berean, gune honetarako aurreikusten diren merkataritza-lokalek 0 kotako sarbidea bermatzea eta ate automatikoak edukitzea gomendatu genuen.
- ✓ Lurpeko solairuetan eta aparkalekuko solairuetan beharrezkotzat jotzen dugu erreserbatutako aparkalekuak “Ez aparkatu” seinale bertikalarekin ere adieraztea.

Hobekuntza hauek guztiak kontuan hartzea espero dugu eta lanean jarraituko dugu etorkizuneko Bilboko autobus-geltoki berriak irisgarritasun eta erabilgarritasun unibertsala bermatuzan alderdi fisiko, sensorial eta komunikazioaren alderditik, herritar guztiek, inor baztertu gabe, terminal berrian gauzatuko diren ekipamendu, zerbitzu eta garraio bideak erabiltzeko aukera izan dezaten.



BIZKAIBUS ETA IRISGARRITASUNA

BFAko Garraio sailburuarekin batzartu gara Bizkaibuseko irisgarritasun-arauek aztertzeko: markesinetako irisgarritasun-falta, plataformen akatsak, gidarien prestakuntza eta desgaitasuna duten pertsonen

informazioa emateko teknologiak eskaintzen dituen aukerak aztertu ziren, besteak beste.

Batzarra onuragarria izan dela uste dugu, eta berandu baino lehen jakinarazi dizkiegun beharrezko neurriak hartuko direla espero dugu, herritar guztiak Bizkaibus berdintasunezko baldintzetan erabiltzeko aukera izan dezaten. Fekoor-ek jarraipena egingo du eta Bizkaibus erabiltzerakoan antzematen dituzuen gorabeherak jakinaraztera animatu nahi zaituztegu.

IRISGARRITASUNA ETA BILBOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

Fekoor-ek Bilboko Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Hiri eraberritzea eta Espazio Publikoko Sailari jakinarazi dizkio hurrengo hamarkadetan aurreikusitako hirigintzarapenerako (Abandoko geltokia lurperatzea eta Abiadura Handiko Trena heltzea edo Bilboko autobus terminal berria) dauzkagun irisgarritasun unibertsalari buruzko proposamenak.

Bestalde, gure kezka jakinarazi genien irisgarritasun-arauak betetzen ez dituzten negozioak irekitzeko baimenak emateagatik eta bide publikoan terrazak jartzeagatik, batzuetan mugikortasun urriko pertsonen joan-etorria eragozten baitute.

Beste alde batetik, Hiribilduko zenbait eremutan dauden irisgarritasun-arazoei buruzko txostena entregatu genien, arazoak konpontzeko ekarpenak eginiz.



BILBOBUS- HARTUTAKO NEURRIAK

Bilbobusek neurri hauek abiarazi ditu:

1. Pertsona batek Bilbobuseko autobusa hartu behar duenean plataforma apurtuta da-goelako ezin badu autobusera igo eta hurrengo helteko 15 minutu baino gehiago falta bada, taxia eskatuko zaio enpresaren kontura.
2. Entzumen-arazoak dituzten pertsonentzako pantailak jarriko dira.
3. Ikerketa egingo da Bilbobuseko garraio publikoaren erabileran desgaitasuna duten pertsonen inklusioa hobetzeko.



KOMUN PUBLIKO EGOKITUAK GETXON

Dagoeneko erabilera publikorako prest daude Aixerrotako komun irisgarri berriak, errotaren eremuan eta Areetako kaiko pasealekuan, Getxoko La Bola hondartzaren alboan.

Komun-ekipamenduen diseinuan FEKOOREko talde teknikoak parte hartu du eta aholkuak eman ditu irisgarritasuna bermatu eta mugikortasun urriko pertsona guztiak erabiltzeko aukera izan dezaten.

KANPAINA: “NI ALDAKETAREN ERAGILE, IRISGARRITASUN UNIBERTSALA HELBURU”

Bizkaian irisgarritasun unibertsalaren aldeko herritarren aktibismoare handi bat sortzeko asmoz, FEKOORek “Ni aldametaren eragile, irisgarritasun unibertsala helburu” kontzientziazio sozialerako kanpaina abiarazi du.

Kanpaina otsailaren 15ean aurkeztu zen Bilboko prentsaurrekoan. Bertan, “Irisgarritasun Erronka” ginkana aurkeztu genuen: ohiko mugikortasun-egoerak dituzten eremuez osatutako 16 metro luze dituen ibilbidea. Herritarrei parte hartze-ko gonbidapena egin genien mugikortasun urriko pertsonak eguneroko bizitzan dauzkaten zailtasunak ezagutu eta enpatia senti zezaten.

Kanpainaren barruan ezkutuko kame- rarekin grabatutako bideoen grabaketa ere badago, irisgarritasun-faltak sortzen duen desberdintasuna eta diskriminazioa erakusteko eta mugikortasun eta irisgarritasun unibertsala gizarte osoarentzako onuragarria dela nabarmentzeko.

BILBOKO ETXEBIZITZA ERAIKINETAN OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO DIRU LAGUNTZAK

Bilboko Udalak diruz laguntzen ditu bizitegitarako eraikinetako atarian zuzenean sartzeko elementu komunetan dauden arkitektura-oztopoak kentzeko lanak eta igogailua jartzeko lanak (igogailurik ez izatekotan). Era berean, bizitegitarako eraikinen inguruetan lehendik dauden erabilera publiko zein pribatuko titularitate pribatuko kanpoko urbanizazioak eraldatzeko obrak finantzatzeko diru-laguntzak emango ditu, baldin eta obra horiek hirigintza-oztopoak kentzea badakarte.

Diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte jabeak diren pertsona fisiko edo juridikoek zein bizitegitarako eraikinetako jabeen erkidegoek.



LAGUNTZA EKONOMIKOAK:

EKINTZA MOTA	DIRU LAGUNTZA
IGOGAILUA JARTZEA	Benetako kostuaren % 10a, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 9.000 €
KALETIK ETXEBIZITZA BAKOITZERA ESKAILERA MAILARIK GABEKO IBILBIDEA EGITEA (lursail edo eraikuntza-zatiak erosi edo desjabetzea)	Kostuaren % 8a, kostua 90.000 € baino handiagoa bada; gehienez ere 15.000 €
IGOGAILUAREN IBILBIDEA LUZATZEA	Benetako kostuaren % 10a, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 6.000 euroko diru-laguntza
OZTOPO ARKITEKONIKOAK KENTZEKO BESTE ESKU HARTZE BATZUK (plataforma jasotzaileak, arrapala...)	Benetako kostuaren % 10a, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 2.500 €
LEHENDIK DAUDEN URBANIZAZIOAK ERABERRITZEA (obra-lizentziarako Udalak eskatzen badu)	Kostuaren % 100a, itzuli beharrik gabe eta BEZ gabe; gehienez ere 1.500 €
OTXARKOAGAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PLAN BEREZIA	Benetako kostuaren % 20a eta gehienez 4.000 € Izogailua jartzen bada: Benetako kostuaren % 10a, itzuli beharrik gabe, eta gehienez 9.000 €
PLAN ESPECIAL DE MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD EN OTXARKOAGA	Izogailua jartzea: benetako kostuaren % 20a eta gehienez 15.000 €

Eskabideak Bilboko Udaleko Erregistroan aurkeztu ahalko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren leko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren batean bidali ahalko dira.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 15ean amaitzen da.

Informazio gehiago: www.bilbao.eus

ALDAKETA ESANGURATSUAK FAMILIA GIROAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOARI BURUZKO DEKRETU BERRIAN

Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 26ko 192/2018 Dekretua onetsi du, zaintzaileen estatutua eta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen dituen.

Mendekotasuna duen pertsonatzat aitortutako pertsonari hileror ordaintzen zaion prestazio ekonomikoa da, gizarte- edo familia-sareko pertsonak mendekotasuna duen pertsonari moduz profesionalen eta bere kabuz edo gainbegiraraten dituen beste pertsona batzuen laguntzaz arreta emateak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko.

Dekretuak aldaketa esanguratsuak jasotzen ditu aurrekoarekin alderatuta lanarekin eta gizarte-zerbitzuekin (eguneko zentroa eta zentro okupazionala) bateragarri egiteko araubideari dagokionez, muga espezifikoak ezartzen dira zaintzaileen profileen eta honako hauek sartzen dira: koefiziente murriztaile berriak, zaintzailearentzako laguntza-neurriak (arau-garape-



naren zain daude batzuk) eta ospitaleratze eta egoitzako aldi baterako lekua izatearekin batezintasuna egonaldiaren lehenengo egunetik.

BATERAGARRIA HONEKIN:	BATERAEZINA HONEKIN:
Teleasistentzia	Aldi baterako edo behin betiko egoitza-zerbitzua
Eguneko zentroa	Egoitza-zerbitzuari lotutako prestazioa
Etkez etxeko laguntza zerbitzua* Udal bakoitzak ezartzen duen arabera	Zentro soziosanitarioak
Autonomia pertsonala sustatzeko zentroak	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak
Zentro okupazionala	30 egun baino gehiagoko ospitaleratzeak
Lanean edo altarekin parekatutako egoeran egotea	

Hauek dira graduaren arabeko zenbatekoak, baina beti % 25a bermatzen da egon daitezkeen kenkariak aplikatu ostean (diru-sarreraren arabeko kenkaria, eguneko zentroko zerbitzua edu-

kitzearen arabeko kenkaria eta jasotzen den antzeko prestazioaren arabeko kenkaria).

MENDEKOTASUN GRADUA	HASIERAKO ZENBATEKOA	GUTXIENEO BERMATUA, % 25A
I. Gradua (25-39 puntu)	180	45
I. Gradua (40-49 puntu)	180	45
II. Gradua (50-64 puntu)	300,90	75,22
II. Gradua (65-74 puntu)	337,25	84,31
III. Gradua (75-89 puntu)	416,98	104,24
III. Gradua (90-100 puntu)	520,69	130,17

Dekretu horretan mendekotasuna duen pertsonak zein zaintzaileak bete behar dituzten baldintzak arautzen dira, eta zaintzaileen **eskubide eta betebeharrak** ezartzen dira bizi-kalitatea hobetzeko:

- Aldi baterako egonaldiak egoitzetan (araudian oraindik erregulatu gabe).
- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko eskubidea (araudian oraindik erregulatu gabe).
- Zaintzeko prestakuntza jasotzeko eskubidea.
- Informazioa jasotzeko eskubidea. Foru Administrazioari erreferentziako pertsona batek emango dio informazioa, hain zuzen.
- Ergonomiarako, zaintzeak eragiten dituen ondorioak prebenitzeko eta laguntza teknikoak izateko eskubidea.

Izapidetzeko, Arreta eskaintzeko Banakako Plana (ABP) aldatzeko eskatu behar duzu, Foru Aldundiaren webgunean eskura dezakezun eredu normalizatuaren bidez. Honako agiri hauek aurkeztea komeni da: mendekotasuna duen pertsonaren eta zaintzailearen NANak, familiako errolda-ziurtagiria eta bankuko fitxa, Foru Aldundiak oraindik ez badauka.

Eskabidea Bizkaiko Forua Aldundiaren edozein erregistrotan edo pertsona erroldatuta dagoen Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan entrega daiteke.

Dekretuari buruzko gure desadostasuna adierazi nahi dugu funtsean, eta besteak beste honako gai hauei dagokienez:

✓ Zaintzaileen baldintzen barruan, baztertu egiten dira mendekotasun-pertsonaren balorazioa duten pertsonak, baliaezintasun handia aitortuta duten pertsonak edo beste pertsona baten araudiak ezartzen duenaren arabera laguntza behar duten pertsonak, eta adineko pertsonak, azken kasu horretan laguntza osagarririk ez badu eta aldeko egokitasun-txostenik ez badu arreta eskaintzeko banakako programaren barruan. Gainera, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duen pertsona ezin daiteke, inolaz ere, zaintzailea izan.

Pertsonak diskriminatzen dituela uste dugu, zaintzailea izateko gaitasunik ez duela aurreikusten baita soilik mendekotasun pertsonaren balorazioa izateagatik, baliaezintasun handia edukitzeagatik, beste pertsona baten laguntza behar izateagatik eta adineko pertsona izateagatik. Baina nolahi ere, paradokiko, salbuetsi egiten dira adineko pertsona batzuk laguntza osagarriak baldin badituzte eta arreta eskaintzeko banakako programaren barruan aldeko txostena baldin badute.

Gaitasunik eza auresuposatzea kontraesan dago Konbentzioarekin, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Legearekin eta Konstituzioarekin berarekin, desgaitasuna duen pertsonak ez duela arduradun izateko eta mendekotasuna duen pertsona zaintzeko gaitasunik adieraziko bailuke; eta bestalde, alde batera uzten du zeregin jakin batzuk zailtasun fisikoak izan arren beste pertsona batzuen laguntzarekin egiteko aukera, pertsona horiek gainbegiratzuz adineko pertsonentzako ezartzen den bezala.

Dekretuak frogatu behar diren karga inbertitzen du, desgaitasuna duten pertsonak

zaintzaile jarduteko ezgaitasun-presuntzioa ezartzen baitu, gai dela uste izan beharrenda ordenamendu juridikoaren arabera, administrazioak egiaztatu behar baitu ezgaitasun hori.

✓ Eguneko zentroan egoteak sortzen duen kenkariari dagokionez (% 50), eguneko zentroko egonaldia egunean 8 ordukoa dela kontuan hartuta (egun erdikoak bada 4 ordukoa), asteleheneetik ostiralera, zentzuzkoena kenkaria proportzionala izatea litzateke. Gainera, kenkaria eguneko zentroaren zerbitzua martxan dagoen egunen arabera bakarrik aplikatu beharko litzateke.

✓ Beste behin ere, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuekin duen bateragarritasuna udalerririk bakoitzaren irizpideen menpe dago, eta horrek udalerrien arteko desberdintasunak sortzen ditu.

✓ Aldi baterako eteten da 30 egun baino gehiagoko ospitaleratzeengatik, baina jakina da pertsona bat ospitaleratuta dagoenean zaintzaile nagusiak behar dituen laguntzak gutxitu beharrenda gehitu egiten direla, ordu luzez bererekin egon behar baitu ospitalean; hala, ez dio pertsona zaintzeari uzten, kontrakoa baizik, zaintza areagotu egiten du. Osasun-sistemak ez du mendekotasuna duen pertsonak behar duen zaintza erabatekoa bermatzen.

✓ Desgaitasunaren hirugarren sektoreari ez zaio Dekretuaren zirriborroari ekarpenak egiteko aukerarik eman onetsi aurretik.

Fekoor-en webgunean duzu informazio gehiago:

www.fekoor.com



FEDERAZIO KOORDINATZAILEA, 40 URTE GIZARTEA ERALDATZEN

40 urte bete dira 1979ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Urritu Fisikoen lehenengo Biltzar Probintziala antolatukoaren Gipuzkoako Ikasketa Unibertsitario eta Teknikoen Institutuan (EUGT gaztelaniaz). Bertan, hauek parte hartu zuten: Fraternidad, Auxilia, Arkaitz, Tailerren Taldea eta Talde Independentea. 1978ko urritik behin-behinean lanean aritu arren, eta aurreko urteetan elkarte batzuk elkarlanean hasi baginen ere, 1979. urtean eratu zen Federazio Koordinatzailea modu ez formalean baina eraginkortasunez. Geroago, 1983ko azaroaren 28an, Federazio Koordinatzailearen biltzar konstituziogilea egin zen, legezketasun osoa emanez.

Ibilbidea ospatzeko, hainbat ekintza diseinatzeko ari gara, irisgarriagoa, inklusiboagoa eta ekitatiboagoa bihurtu nahi duen Lurralde baten eraldaketa sozialean desgaitasun fisikoa duten Gipuzkoako pertsonen osatutako elkarte-mugimenduaren lanak daukan garrantzia azpimarratzeko.

Antolatuko ditugun ekintzei buruzko xehetasun gehiago laster jakinaraziko dizkizuegun arren, nagusienak honako hauek izango direla aurrera dezakegu: batetik, Federazio Koordinatzailearen ibilbidea eta eraldaketa sozialaren aldeko



KURSAAL

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

lanean garatu dituen gertaera garrantzitsuenak jasotzen dituen liburua argitaratzea; eta bestetik, azaroaren 7 eta 8an Kursoaren egingo den Biltzarra antolatzea. Bertan, hezkuntza, enplegua, irisgarritasun unibertsala edo Bizimodu Independentearen eremuko desgaitasunaren arloko politikak aztertu eta horiei buruz eztabaiatuko dugu.

Ziur gaude **elkartuk** ibilbide luzean zehar egingo dako lana erabakigarria izan dela orain dela lau hamarkadako baina gizarte inklusiboagoa lortzeko; era berean, egia da oraindik ere asko dagoela egiteko desgaitasun fisikoa duten pertsonen aukera-berdintasuna guztiz bermatzeko. Horregatik, lortu ditugun helburuak gizarte osoaren aurrean azaldu nahi ditugu, baina aldi berean, Federazio Koordinatzailearen helburuak ahal dugun heinean betetzeko lagungarriak izango diren politika, neurri eta ekintzak proposatu eta sustatu nahi ditugu. Hauek dira lortu nahi ditugun helburuak: desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharrezko erantzutea eta Gipuzkoan gizarte inklusiboa eraikitzeko eragile erabakigarria izaten jarraitzea.

Zure zain egongo gara!

DONOSTIAKO AUTOBUS GELTOKIA

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. epaitegiak epaia eman zuen 2019ko urtarrilaren 10ean, eta epai horren bidez ezetsi egin zuen Donostiako autobus-geltokiaren irisgarritasun unibertsaleko baldintzei buruz **elkartuk** jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Epaiak hau ezartzen du: *“Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa guztiz errespetatzen da, eta gehienaz ere, arrazoizko egokitzapenak dira”.* Halaber, honako hau argudiatzen du: *“Erabiltzaile batek berak ere ez du, ez hitzez ez*

idatziz, irisgarritasunari edo mugikortasunari buruzko erreklamaziorik egin”.

Gobernu-organoetan baloratu ostean, **elkartuk** apelazio-errekurtsoa aurkeztea erabaki zuen. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, gure ustez epaiaren edukia ez baita irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen esparru juridikoaren printzipio eta manuen araberakoa. Era berean, ez dator bat Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioarekin honako gai hauetan: irisgarritasun unibertsalerako eskubidea eratzeko nahitaezko elementuak, mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbaren kontzeptua, edo arrazoizko egokitzapenaren legezko kontzeptua.


Halaber, batez ere ebazpen judizialean hartzen den irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua aurrekari bihurtzeko arriskuagatik eman du Federazioak urrats hori, garatzen ari diren irisgarritasun unibertsalaren sustapen-politiketan atzerapen larria ekar baitezake, beste ondasun, baliabide edo zerbitzu batzuk desgaitasuna duten pertsonen berdintasun-baldintzetan eskuratzeko aukera bermatzea arriskuan jarritz.

PERTSONA GUZTIENTZAKO MUSEOA BILTZARRA


elkartu “Pertsona guztientzako museoa: artea, irisgarritasuna eta gizarte-inklusioa” nazioarteko biltzarrean parte hartu zuen Madrilen apirilaren 2tik 5era bitartean.

Biltzarrearen helburua zen, batetik, museo-kudeatzaile, irakasle, artista, ikasle eta kulturako profesionalen artean hartu-emanerako topalekua sortzea; eta bestetik, arte-museoak pertsona guztiei, beren aniztasuna kontuan hartu gabe, zabaltzeari buruz eztabaidatzeko lekua sortzea.

Izan genuen parte-hartzean, komunikatu bat aurkeztu genuen azken urteotan zehar kultura irisgarri eta inklusiboaren arloan egindako lanaren garrantzia azpimarratzeko asmoz. Horretarako, eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua proiektuaren barruan egindako “Kultur ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko gidaliburua” erreferentziatzen hartuz, herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzeko Gipuzkoako hainbat museorekin (Igartubeiti, Zumalakarregi, Oiasso, etab.) elkarlanean burutu ziren proiektuak erakutsi genituen.



Horretarako, instalazio eta zerbitzuen irisgarritasun-baldintzak aztertu dira, gai horretan aurrera egiteko hartu behar diren neurri teknikoak proposatu eta museoko langileei prestakuntza-saioak eskainiz, kultur eremuan inklusiorako politika eta jardunbideei lotutako ezagutza partekatzeke.



Jarduera horiei esker, proiektuan parte hartu duten museoetako irisgarritasun unibertsala hobetu da, eta euren instalazioak bisitatzea animatzen zaituztegu, antolatzen dituzten erakusketa eta jardueraz gozatzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, hemen eskura dezakezue:

<http://www.igartubeitibaserrria.eus>

<http://www.zumalakarregimuseoa.eus>

<http://www.oiasso.com>

AUTOBUSAK ETA IRISGARRITASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA

Maiatzaren 9an prestakuntza-jardunaldia antolatu zuten **elkartuk** eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak. Jardunaldia Gipuzkoako hiriarteko autobusetan garraio publikoko zerbitzua eskaintzen duten enpresei zuzenduta egon zen eta helburua gidari eta operadoreen trafiko-arduradunen artean irisgarritasun unibertsalaren arloko prestakuntza sustatzea da.

Saioan zehar, ezagutzak partekatu zituzten irisgarritasunerako elementu eta gailuei buruz. Horiei esker, mugikortasun urriko pertsonak autobusera sartu eta garraio hori erabiltzeko aukera bermatzen da. Gainera, esperientzia eta jardunbideen trukea sortu zen, profesionalen, zein desgaitasuna duten pertsonen artean. Prestakuntzaren lehenengo zatia teorikoa izan zen, eta bigarren zatian, aldiz, gurpil-aulkian autobusera sartzearen ekintza burutzeko aukera eman zitzaizen gidariei, arrapalak eta plataformak erabiliz.

Halaber, **elkartuk** material didaktikoa egin zuen, mugikortasun urriko pertsonak autobusak erabiltzen dituztenean gidariak kontuan hartu behar dituzten gaien dekalogoarekin.

- **Geldialdiak.** Espalaira hurbildu, arrapala edo plataforma jasotzailea abiarazteko oztupoak ekidin eta mugikortasun urriko pertsonak sartu eta irteterakoan sarrerako eskailera jaitsi beti.
- **Sartzeko lehenetsua.** Gurpil-aulkia erabiltzen dutenak izango dute lehenetsua umeen aulki eta kotxeen edo bizikleten aurretik, barruan badaude izan ezik.
- **Informazioa.** Ibilgailuan, geralekuetan eta zerbitzuetan ematen den informazioa argia, erraza eta ulergarria izan behar da.
- **Mugikortasun urriko pertsonak autobusetik sartu eta irtetea.** Ate erosoenetik ahalik eta ahalegin txikiena eginez sartu eta irtengo dira, eta sartzeari erraztuko zaie baliabide egokiak, eskailera igo ezin badute.
- **Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak.** Kasu honetan, solairu baxuko ibilgailuetan makurtze- edo jaiste-sistema duen arrapala erabili (baita material ortoprotesikoaren kasuan ere). Solairu altuko ibilgailuetan plataforma jasotzailea erabili eta aulkia jarri beharrezkoa baldin bada.
- **Abian jartzea.** Bat-bateko mugimenduak ekidin eta mugikortasun urriko pertsonak txarte-

la balioztatu duela eta ondo kokatuta dagoela egiaztatu.

- **Laguntzaileak.** Pertsona itsuei eta gurpil-aulkian dabiltzanei laguntzen diete euren segurtasuna bermatzeko. Doan bidaiatuko dute.
- **Erreserbatutako lekua.** Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak izango dute lehentasuna. Kontuan hartu mugimenduak egiteko eta kokatzeko izan ditzaketen arazoak.
- **Erreserbatutako eserlekuak.** Mugikortasun urriko pertsonak izango dute lehentasuna. Okupatuta badaude eta uzten ez bazaizkie gidariak eserlekuak egoki erabiltzeko eskatuko du.
- **Mantentze-lanak.** Irisgarritasun-sistemak (arrapalak, plataformak, abisu-sistemak, argiadierazleak eta adierazle akustikoak, gelto-kiei buruzko informazioa, makurtze-sistema etab.) eskuragarri eta martxan egon behar dira beti.

MENDEKOTASUNA ETA ZAINZTAILEAK

A benduaren 12ko 24/2017 Foru Dekretua, 39/2006 Legean (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea, abenduaren 14koa) jasotzen diren prestazio ekonomikoak arautzen dituen egiteko prozesuan, eta baita indarrean jarri ondoren ere, familia-giroan zaintzeko zein profesionalak ez diren zainzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa eskuratzeko ezartzen diren baldintzetako baten kontrako iritzia agertu du elkartuk bereziki. Zehazki, honen aurkako jarrera hartu du **elkartuk**: “Zaintzailea ezingo da izan mendekotasuna aitortua duen pertsona, baliaezintasun handiko pentsioa edo beste pertsona baten laguntza beharra aitortua duena; era berean,



ezingo du izan % 65eko desgaitasuna edo handiagoa”.

elkarturen ustez, diskriminazio-kasu bat sortzen da desgaitasuna duten pertsonen aurka, desgaitasuna duen pertsona bat izatekotan ezgaitasun presuntzioa jasotzen baita zainzaile izateko; halaber, udaleko gizarte zerbitzuek mendeko pertsonaren beharrak betetzeko egokia den ala ez adierazten duen txostena jasotzeko eskubidea urratzen zaie, beste herritarrei ez bezala.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren aurkako lege-neurria denez, Federazioak administrazio-errekurtsoa jarri zuen arauaren aurka, baina azkenean gaitzetsi egin zen. Irizpide hau aplikatzearen ondorioz, desgaitasuna duen pertsona eta/edo mendeko pertsonak zainzailetzat hartzen dituzten prestazio ugari 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera iraungi egingo zirela kontuan hartuta, **elkartuk** neurri hau atzeratzeko eskatu zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 6 hilabete atzeratzea erabaki zuen.

Hala ere, kontuan edukita mendekotasuna duten pertsonen eta horien zainzaileei eragindako kalte larri eta bidegabea, beharrezkoak diren kalitate-baldintzetan eskaintzen ari diren zainketak arrazoirik gabe zalantzan jartzea eta Des-

gaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubideen urraketa, elkartuk neurri hau ondorerik gabe uzteko eskatu du, desgaitasuna duten pertsonak eta/edo mendekotasuna dutenak zaintzailatzat hartuak izaten jarrai dezaten Familia giroan zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren ondoreetarako.

OSASUN- INSTALAZIOETAKO IRISGARRITASUNA

A rartekoak **elkarturekin** elkarlanean egindako “EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa” aparteko txostenaren harira, Osakidetza osasun-instalazioen azterketa-prozesua hasi du irisgarritasun unibertsaleko baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak gauzatzeko.

Gure ustez, ekimen positiboa da, eta bat dator aipatutako azterlaneko ondorio eta proposamenekin. Espero dugu benetako aurrerapenak ekarriko dituela, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak erabiliz, pertsona guztientzako instalazio eta zerbitzu sanitario irisgarriak bermatu ahal izateko.

Halaber, ospitaleak edo beste edozein osun-baliabide erabiltzen dituzuenean ikusten dituzuen irisgarritasun-arloko gabeziak jakinaraztea eskertuko genizueke.

